

Ametza ta piñua  
ifarrak dardaraten;  
giza-esku latzetan  
eun iskillu sutatzen.

Troka, zelai, aldapa  
gorpuz dira estali...  
Zapcak milla zaldi  
ditu ona bidali.

Osto artean, baltza,  
adua didar biziz;  
bizia ebagirik  
gazteak doaz jausiz.

Bizkargi!, odol mendi!  
eziñaren gaitz lore di!

Maiatza da lore di,  
gazteak bizi miñez;  
baiña aberria dabe  
txautzen bizi-odolez.

Agur betikoz illik  
ondoan ditut eunka,  
erri alde aituak  
zeru arrera soka.

Gau baltzak dau zolitzen  
zaurituen garraxi!  
Eta il-salmu artean  
erriok ots ausarti.

Bizkargi!, odol mendi!  
eziñaren gaitz lore di!

## BASOAN ILLA

—«Euri-jasa ezpa-litz, bota alean,  
basora niñoiake maitea ikusten»;  
taiu ontako kantuz neskatx gaztea  
goibel egoan bere leio ertzean.

—«Guda-otsez, iñoan, gaur maitea yat  
basoratu. Euria... Bustiko ete?  
Egia esan: jantzi bi dauz soiñean,  
bat sedazkoa, liñoaz eiña beste bat».

Ustez betea, baiña ezpaiak joa,  
leio zuria itxirik, ezpan-gorritsu,  
eun ori asían dautso ekiten,  
maiteari ein naian jantzi beroa.

Ikaror biurtu zan gaba, ululan,  
ekaitzak ler-eztanda tximist gaiñean,  
su-karraxi mamuak illun-altzoan,  
iskanbil erdian dart erio irrintzi.

Urriñeko itzaren dei zital antzo,  
eguna asi-ala izpar baltza yatorko:  
—«Etxe-barru zarean neskatx gaixoa,  
egin zaitez, ai!, izpar baltz jabe», diño.

—«Illik datza maitea leizar ondoan,  
eztau ekaitzak il, ez urak eratsi;  
miñak joa egoan, zugazko miñak,  
orrek dautzu eratsi ixil-zokoan».

Maite-su bik daukee, bai, gazte zangarra  
guda-oiñeko bedar gorrian illik:  
maitea zinduzen zu biotz erditik,  
maitea eban baita Aberri lurra.